

2025eko EKAINA

BERMEON ZER?

Ekainak 5

**Zinegoak Hedapena.
Film laburren emanaldia**

Ekainak 23

San Juan bezpera

Ekainak 24

**San Juan Eguna
Arane-Gibelortzaga
auzoan**

Hazte el test

Testa egin

Juega tu papel en la detección del cáncer colorrectal

Bete zure eginkizuna kolon-ondesteetako minbiziaren detekzioan

Entrega de muestra sin espera
Laginak entregatu itxaron gabe

1



2



3



4



Teléfono gratuito
900 84 06 70 Osakidetza
Dasko telefonoa

900 100 036
asociacioncontraelcancer.es

 Bizkaia
Euzko Legebiltzaria

 Osakidetza

 Bermeoko
UDALA

 minbiziaren
aurka
Bermeo

 contra
el cáncer
en Bermeo

01 Domeka



DEIADAR MENDIAK

10:00: Oinez joateko irteera Taraskatik, Sollube 707 mendizale taldearen laguntzarekin

12:00: Deiadarraren ekitaldia Nestor Basterretxearen 'Matxixakoko Bataila' eskulturaren egingo da.

Antolatzailea: **Gure Esku**

KIROLA TXIKIGYM

Antolatzailea: **Xixili Gimnastika taldea**

KIROLA

III. BERMEO BIZI FESTA

10:30-11:00. Jatekoa batuko da

11:00-12:00. Bermeo Bizi Festa

12:00-14:30. Puzgarriak eta disko festa

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala, Matxixako T.K.T. eta Orkatzeta**



Areneko
kiroldegian

10:30etik
aurrera

Lameran



Turismo
Bulegotik
12:00etan

BISITA GIDATUA

"EMAKUMEAK, BERMEOKO HISTORIAREN PROTAGONISTAK"

Bisita gidatua herritik

Izen-ematea: 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



02 Astelehena

Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00etan

HITZALDIA

"ETXEBIZITZA ETA GAZTEAK: AUKERAK ETA BALIABIDEAK EZAGUTUZ"


Etxebizitzak alokatzeko edo eskuratzeko dauden aukeren inguruko informazioa emango dute GAZ-eko (Gazteen Emantzipaziorako Zerbitzua) kideek. Baliabideak ezagutu eta zalantzak zuzenean argitzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

OHARRA: Aldez aurretik izena eman behar da.

INFO + eta izen-ematea: www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950

(WhatsApp zenbakia) - 94 617 91 58 - giz@bermeo.eus

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



03 Martitzena
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
11:00etan

EMANALDIA

ERROXAPEKO MARTXA

Antolatzaileak: **Erroxapeko Martxa eta Bermeoko Udala**

Euskal
Gunean
18:00-19:00

GURASOLAGUN

ZIRKU TAILERRA

Gurasoek eta seme-alabek elkarrekin
euskaraz akrobaziak, clown eta magia
egiteko tailerra.

6 eta 10 urte bitarteko seme-alabentzat
gomendagarria

Doan
Izen-ematea: 607 609 580

Antolatzailea: **Berbalagun**



Lameran
19:00etan

TUTTI KONTZERTUA

Musika Eskolako taldeen kontzertua

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



04 Eguaztena
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
11:00etan

BERTSOLARITZA

BERTSO ARDATZ EKIMENA

Ekimenaren helburua da, bertsolaritzaren
bidez, egoiliarren bizi-kalitatea eta gaitasun
psikoemozionalak hobetzea.

Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Xebastian
Lizaso

Antolatzaileak: **Bizkaiko Foru Aldundia eta
Bermeoko Udala**

05 **Eguena**
Nestor
Basterretxea
aretoan
18:30ean



FILM EMANALDIAK

ZINEGOAK HEDAPENA

Film laburrak:
¿Dónde estás?
Arrecife
Queimando por dentro
Three
Judoka
Azkena
Doan

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



06 **Barikua**
Lameran
14:00etan

EKITALDIA

UDA AURREKO TOPAKETA

Topaketa eta bazkaria

Antolatzailea: **Berbalagun**

Hermanuetako
Kapillan
21:00etan



MUSIKA

KONTZERTUAK

Ziraun (Gernika-Lumo) + John Dealer
and the Coconuts (Legazpi).

Sarrera: 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkartea**



07 **Zapatua**
Lameran
11:00-14:00

MAHAI INFORMATIBOA

KOLON ETA ONDESTEKO KANPAINA

Antolatzailea: **Minbiziaren Aurka Bizkaian**

07 **Zapatua**
Itxas Gane
futbol zelaian



Artza frontoian
20:00etan

URTEURRENA

BERMEO FUTBOL TALDEA

11:00: Imanol Urrutiari omenaldia

11:15: Bermeoko Abesbatza

11:45: Talde argazkia (entrenatzaile, jokalaria eta zuzendaritzakoak)

12:00: Beteranoen partidua: Bermeo-Gernika

13:30: Solasaldia

*Antolatzailea: **Bermeo Futbol Taldea***

EKITALDIA

ALKARTASUNA DANTZA TALDEKO UMEEN DANTZALDIA

*Antolatzailea: **Alkartasuna dantza taldea***

*Laguntzailea: **Bermeoko Udala***

08 **Domeka**
'Olatua'
eskulturan
09:00etan

EKIMENA

HONDARTZEN ETA ITSAS HONDOEN GARBIKETA

Bermeoko Portuko hondoa garbituko dute

Informazio gehiago: izarosub@izarosub.eus

*Antolatzailea: **Izaro Sub***



Portuan
Goizean

KIROLA

EUSKADIKO TRAINERU TXAPELKETA

*Antolatzailea: **Bermeo-Urdaibai Arraun Elkarte***

09 **Astelehena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
17:30-19:30

TAILERRA

"ZIKLIKOTASUNA EZAGUTZEN, HILEROKOTIK HARATAGO"

Zergatik bihurtu dugu naturala dena isildu beharreko?

LH4, LH5 eta LH6 mailetako neskei eta beren emakumezko erreferenteei zuzendua

Izen-ematea: 688 634 449 • berdintasuna@bermeo.eus

*Antolatzailea: **Bermeoko Udala***



10 **Martitzena**
Arrantzaleen
Museoan
18:00etan

MUSOINUAK
PIANOKO IKASLEAK

11 **Eguaztena**
Egoitz Alai
zaharren
egoitzan
12:00etan

KANTUAN
ERROXAPE ABESBATZA

Nestor
Basterretxea
aretoan
19:30ean

KONTZERTUA
MUSIKA ESKOLAKO TALDEAK
Gitarra eta flautako ikasleen emanaldia

12 **Eguena**
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
17:00etan

DOINUAK KONTZERTUA
GITARRAKO IKASLEAK

13 **Barikua**
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
12:00etan

KANTUAN
ERROXAPE ABESBATZA

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Areneko
kiroldegian
17:30etik
aurrera

KIROLA
XIXILI GIMNASTIKA TALDEAREN
IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

Antolatzailea: Xixili Gimnastika Taldea

Kabidxen
17:30ean

DOKUMENTAL EMANALDIA
"ANDRAK ERRAMUTAN"

Ekimen feministaren aurkezpen

Antolatzaileak: Andrak Erramutan eta Bermeoko Mugimendu Feminista
Laguntzailea: Bermeoko Udala

Nestor
Basterretxea
aretoan
19:00etan

HITZALDIA
"BERMEO KLUBEKO HISTORIA"

Antolatzailea: Bermeo Futbol Taldea



13 **Barikua**
Lameran
16:30etik
aurrera

EKIMENA
Marokoko kultura eta gastronomia
ezagutzeko jardunaldia
Antolatzailea: **ASSALAM**
Laguntzailea: **Bermeoko Udala**



*Erroxapeco
lokalean*
19:00etan

EKITALDIA
BINGOA
Antolatzailea: **Erroxapeco Emakumeen Elkarte**




14 **Zapatua**
Eleizalde
Ikastolan
12:00etatik
aurrera

EKITALDIA
IKASTOLA EGUNA
Txiki eta nagusientzako ekintzak:
puzgarriak, laser-tagak, tailerrak,
foodtruckak, dantzak, aparra,
erromeria...
Antolatzailea: **Eleizalde Ikastola**



Artza
frontoian
18:00etatik
aurrera

KIROLA
PALA MOTZA TXAPELKETA
Fletxari omenaldia
Antolatzailea: **Zesta eta Pala elkarte**



16 **Astelehena**
Egoitz Alai
zaharren
egoitzan
12:00etan

KONTZERTUA
DOINUAK
Trikitixa eta panderoko ikasleak
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

17 **Martitzena**
San Frantzisko
elizako
klaustroan
18:30ean

KONTZERTUA
MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK
Trikitixa eta panderoko ikasleak
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

18 **Eguaztena**
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
17:30ean

KONTZERTUA
DOINUAK
Flautako ikasleak
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

19 **Eguena**
*San Frantzisko
elizako
klaustroan
18:00etan*

*Arrantzaleen
museoan
18:00-20:00*

KONTZERTUA
KANTUAK
Koro Txikia
Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

HITZALDI ZIKLOA
"CASO ORTUBE"

"Erabiltzen ari den ondarea, nabigatzeko berreskuratu" Ortube taldeak euren lanak gure ondarean duen garrantzia azalduko digu. Gaztelaniaz.

Doan

Erreserba egitea beharrezkoa da

Informazioa eta erreserbak:

94 688 11 71 • arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**

20 **Barikua**
*Lameran
16:00-20:00*

*Erroxapeko
lokalean
19:00etan*

IKASTURTE AMAIERAKO JAIA
PUZGARRIAK

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

FILM EMANALDIA
"BRIDGET JONES SOBREVIVIRE"

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

21 **Zapatua**
*Sanfrantziskoportalen
hasita
12:00-15:00*

*Arrantzaleen
Museoan
13:00etan*

KALEJIRA
Marabiyak kolektiboaren solar sound sistema kalejiran ibiliko da Bermeoko Alde Zaharreko kaleetatik, orubez orube, udako solstizioaren harira eta Ekliptika zikloaren baitan.

Sanfrantziskoportalen hasi eta Talan amaituko da ibilbidea, guztira hamar geldialdi eginez

Ekimen hau Alde Zaharreko orubeak balioan jartzeko eta bizitzaz betetzeko asmoz antolatu da.

Informazio gehiago: kultura@must.eus / 691 837 570

Antolatzailea: **Must kooperatiba txikia**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

KONTZERTUA
CORO MAIKA

Antolatzailea: **Coro Maika**



21 Talan
18:00etatik
aurrera

Bermeoko
Rol Eskola
Elkartearen
lokaletan
(Esparru kalea, 1)

DANTZ POINT

Dantz Pointek musika elektronikoaren bitartez Tala topagune bihurtuko du. Tokiko eta inguruko artistek beren set-ak partekatuko dituzte, espazioa erritmoz, komunitatez eta energiaz betez. Ondarea, kultura eta sorkuntza garaikidea uztartzen dituen esperientzia bat izango da.

Antolatzailea: **Dantz Point**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

TXAPELKETA

WARHAMMER 40K BANAKAKO TXAPELKETA

Estatuko rankingerako puntuagarria izango da.

Antolatzailea: **Bermeoko Rol Eskola Elkartea**



21 Zapatua
22 Domeka

Taraskan eta
Klaustroan
Zapatua:
11:00 - 21:00
Domeka:
11:00 - 16:00

AZOKA SOLIDARIOA

Erreteren
12:00etatik aurrera

Antolatzailea: **Minbiziaren Aurka Bermeon**

BERTON AZOKA

Expo-Azoka honen helburua da herriko komertzioek eskaintzen dituzten kalitatezko zerbitzu eta produktuak herriari erakustea, herritik irten barik, eskura dauden hainbeste aukera eskaintzea

Ekintzak:

- 1- GASTROGUNEA
- 2- TXIKIGUNEA
- 3 - PRODUKTU ETA ZERBITZUEN ERAKUSKETAK
- 4 - ZOZKETAK

Antolatzailea: **Berton**

Babeslea: **AUG aseguruak**

Laguntzailea: **Rural Kutxa**



SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA)

AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU)

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

900.840.111

900.840.977

946.179.160

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZTION
ARDURA DA**





23

Astelehena

Kanta kanta
Loruen
kalejira

*Goiko Plazatik
20:00etan*

Kalejira
nagusia

*Gizarte eta
Kultura Etxetik
21:00etan*

SAN JUAN BEZPERA

14 atsoak udaletxeko balkoian eskegiko dira goizetik gauera arte.

Usadio zaharrak berritzeko eguna. Urteko gaurik laburrena badator, misterioz eta kondairaz beteta.

*Antolatzaileak: **Herriko taldeak eta Bermeoko Udala***

*Jai Batzordeak San Juan sura plastikorik ez botatzeko deia egiten du, urtero moduan. Karta-azalak egongo dira eskuragarri Gizarte eta Kultura Etxean, Turismo Bulegoan (Bekoportalen), Areneko Kiroldegian, Berhaz bulegoan, Sancti Spiritus zaharren egoitzan eta San Juan bezperan Kabiñen (sutera botatzeko daukazuna sartzeko)

**San Juan sue, txarrak kanpora,
onak barrure!**

24

Martitzena

SAN JUAN EGUNA

ARANE-GIBELORTZAGA AUZOKO JAIK

11:00etatik aurrera. Txosna zabalik (Taloa egun osoan)

15:00: Bazkaria

17:00: Josepa Kale Kale eta umeentzako jolasak (txokolatea)

19:30: Trikizio taldea.

*Antolatzailea: **Arane-Gibelortzaga auzoko bizilagunak***

*Laguntzailea: **Bermeoko Udala***

26

Eguena

*Gizarte eta
Kultura Etxetik
19:00etan*

KALEJIRA

Txo Sevilla taldearen kalejira: Gizarte eta Kultura Etxea, Portuzarra, Lamera eta Taraska

*Antolatzailea: **Txo Sevilla taldea***

27 **Barikua**
Erroxape
Emakume
Elkartearen
lokalean
19:00etan

Nestor
Basterretxea
aretoan
19:30ean



28 **Zapatua**
Artza
frontoian
Arratsaldean

KONTZERTUA CORO MAIKA

Antolatzailea: **Coro Maika**

ANTZERKI TAILERRAREN XII. URTEURRENA "ETXA GATZA!" ANTZEZLANA

Ikusleek buruan apaingarriren bat eramatea eskertuko da (txapela, belarriak, zapia, peluka, betaurrekoak...)

Aretoan sartzeko gonbidapena behar da.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



KIROLA ZESTA PUNTA JAIALDIA

Antolatzailea: **Zesta punta taldea**

29 **Domeka**

SAN PEDRO EGUNA- ARRANTZALEEN KOFRADIAREN EGUNA

GIZ

BIDAIATEKA

Mundu osoko gidak zure esku udako bidaiak eta oporrak prestatzeko!

Bidaia-giden 15 eguneko doako mailegua.

Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpekide txartelak, ISIC, ITIC...

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com



LAN-ESKaintzen Harpidetza Zerbitzua

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688 819 950 zenbakira idatzi. Zerbitzuan alta emateko, 688 819 950 telefono-zenbakia gehitu behar da mugikorreko kontaktuen agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com webguneko eskaera-inprimakia bete.



HILEKO KIROL EKIMENA

ESKALADA

TAILERRAK

01 Eskalada Tailerra

NAGUSIAK

- » **Egunak:** Ekainak 7 eta 8
- » **Ordua:** 10:30-12:00
- » **Adina:** 14 urtetik gorakoentzat
- » **Tokia:** Areneko Kiroldegian

02 Eskalada Tailerra

GAZTEAK

- » **Egunak:** Ekainak 7 eta 8
- » **Ordua:** 12:00-13:30
- » **Adin tartea:** 8-14 urte bitartean
- » **Tokia:** Areneko Kiroldegian

Izen-ematea maiatzaren
17tik aurrera web orrian eta
salmenta makinetan.

Prezioa saioka:

Abonatuak: 3.10€

Ez abonatuak: sarrera + 3.10€



Bulego birtualean:
kirola.bermeokudata.eus



Bermeo Kirolak

KZ GUNEA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Ekainaren 12a eta 13a: 11:00-13:00.
"Garraio publikoa zure smartphonean"
(gaztelaniaz). 4 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Ekainaren 5ean: 11:00-13:00
Ekainaren 11n: 14:00-16:00/16:00-18:00



ttakuntxo
txalaparta

Txalaparta klaseak adin guztietarako
Eguazten eta Zapatuetan Kultur etxean
17:00-18:00 (taldearen arabera)
tf: 608377435

Euskera Saila

ANTZERKI TAILERRA

Ekainaren 4, 11, 18
eta 25ean.

Gizarte eta Kultura
Etxean, 19:30ean



UDAN ERE BERBA LAGUN

Udan ere mintzabiltzen ezazu! Dugu, udan ere hitz egiteko eta ulertzeko laguna. Hainbat baliabide eta baliabide partekatuak.

Gure ematea nahikoa 20 urte: **DOHAINIK DA!**

Berba 607 609 580

Izena emateko azken eguna:
ekainak 20



2025EKO UDABERRIKO berbalagun lehiaketa

Parte hartu lehiaketan eta Bermeoko produktuak irabazi. Zelan? Bete orri hau, argazkia atara eta bidali whatsapppez 607 609 580 zenbakira.

Izena: _____

Telefonoa: _____

E-posta: _____

Azken eguna: ekainaren 13a.

Erantzun zuzenak eta sariduna: berbalagun eta sustatzaileen sare sozialetan.

Bermeoko berbalagun

<http://praktikatu.eus/blog/bermeo>

1 Lotu, zenbakia idatziz:

- | | |
|---------------|---------------------------------------|
| 1. Abiadan | ☐ ahul |
| 2. Astiro | ☐ majo |
| 3. Lasai | ☐ ziztu bizian |
| 4. Ernega | ☐ tematsu |
| 5. Buru-gogor | ☐ bare |
| 6. Ederto | ☐ haserre |
| 7. Makal | ☐ pal-pal |

2 Argazkikoa da:



- ☐ Pentagrama
- ☐ Hormairudia
- ☐ Eguzki-erlojua
- ☐ Iragakia

3 Deiadar-mendiak dira:

- ☐ Koltza, Oiz eta Burgoa
- ☐ Ganekogorta, Oiz eta Sollube
- ☐ Gorbeia, Katillotxu eta Oiz
- ☐ Garbola, Oiz eta Sollube

4 Udako frutarik goxoen da:

Kultur Zerbitzuak

UME TXIKIEN TXOKOA

Gizarte eta Kultura Etxean

Astelehenetik eguenera, 16:30etik 19:30era

Umeek arduradun batekin egon beharko dute derrigorrean

GAZTEENTZAKO JARDUERAK KONTZERTU DIDAKTIKOA - BÉRBALDI MUSIKATUA (TRAKAMATRAKA)

Ekainaren 6an, barikua, Bermeoko Gaztelekuan

Ordutegia: 18:30-19:30

10 urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzendua.

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com eta 688 819 950 (WhatsApp zenbakia)



ZINEA

NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Sarreraren prezioa:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

Ordutegia:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Astelehenean (ikuslearen eguna):

19:00etan eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean.

NAGUSIENTZAKO FILMAK

- **Misión Imposible: Sentencia Final**
- **Algo le pasa a mi yerno**
- **Sirāt**



BEHARGINTZA

Bermeoko Udalak, Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintzaren bitartez, ondorengo programak abian jarri ditu industria eta industriari lotutako zerbitzu enpresentzako, guztiz DOAN, Bizkaiko Fori Aldundiko Beaz eta Behargintza BMS dirulaguntzari esker:

ENPRESA BERDEA PROGRAMA

ETEEi TRANTSIZIO EKOLOGIKOAN laguntzeko helburuarekin, Informazioa, Formazioa eta DOAKO laguntza jasoko duzu honako beharrian hauei aurre egiteko:

- Ingurumen-araudira egokitu
- Eraldaketa ekologikorako Plan bat jaso
- Efizientzia energetikoa hobetu
- Enpresan Trantsizio Ekologikoa mikroproiektuak inplementatu

Gai desberdinetarako 50 orduko aholkularitza espezializatua jasotzeko aukera!

SALBIDE PROGRAMA

Enpresek erabat doakoa izango den aholkularitza zerbitzua jasoko dute 2025ean zehar, euren produktuen merkaturatzea merkatu berrietara eramateko; bai estatu zein nazioarte mailan (plaza mugatuak).

BBLUE

Jarduera honen helburua da Itsas Industriaren eta irristatzearen alorrean industriarekin lotura duten industria- eta zerbitzu-enpresen lehiakortasuna bultzatzea eta lurraldeen arteko oreka sustatzea.

HAZINNOVA PROGRAMA

Hazi egin nahi duten eta produktu, prozesu, marketin eta antolakuntza arloetan berrikuntzak dakartzaten mikro-proiektuak dituzten ETEentzako doako aholkularitza.

Informatu zaitez behargintza@bermeo.eus edo 94 617 91 90 telefonora deituz.

Aprobetxatu aukera hauek zure enpresaren lehiakortasuna bultzatzeko.



ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoa

Ekainaren 7tik 15era

Tras el cristal

Iñakiren esanetan, argazkiak bat- batekoak dira, une jakin baten aurretik eta ondoren lortzen direnak. Erakusketa labur honetan Iñakik munduan zehar ateratako argazkiak ikusiko ditugu

Nuevo Anchustegi "Gure Señoriti"

Erakusketak Ondarroako Nuevo Anchustegi ontziaren istorioa kontatzen digu. Euskal Herriko baxurako arrantza tradizionalaren garapenaren ordezkari, ontzia ondare material garrantzitsu modura aurkezteaz gain, erakusketak memoria immaterialean ere sakontzen du, eta Nuevo Anchustegi-n bizi eta lan egin zuten pertsonen lekukotasun eta esperientzietan murgiltzera gonbidatzen gaitu.

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 16:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30

Astelehenak itxita.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa:

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: *Arrantzaleen Museoa*

Gaztelekua (Gizarte eta Kultura Etxea)


BARRUETA ARTE ELKARTEAREN UMEEN TAILERREKO ERAKUSKETA

Ekainaren 20tik aurrera

Berhaz Bulegoan

BERHAZ BULEGOKO XLII. ERAKUSKETA

OANA PERJERU "ABRIENDO CAMINOS. Paisajes desde el corazón"



Harremanetarako: 678 279 679 /
oanaperjeru77@gmail.com

Bulegoko udako ordutegia:
Astelehenetik barikura: 08:00-14:30

Nestor Basterretxea Aretoa

BERMEO FUTBOL TALDEAREN 75.URTEURRENA

Argazki erakusketa

Ekainaren 7tik 14ra

Egunero 19:00etatik 21:00etara

BARRUETA ARTE ELKARTEAREN NAGUSIEN TAILERREKO ERAKUSKETA

Ekainaren 20tik 29ra

ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRIEN LABURPENA

► GAIA

Bermeoko jaiak. Kartela Bermeoko jaietako adierazle izan behar da. Horretarako, honako ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: jai herrikoiak eta herritarrentzat izatea, parte-hartzaileak, sortzaileak, euskaldunak, feministak, solidarioak eta ekologistak.

► LANAK AURKEZTEA

- Lanen egileek pertsona fisikoak izan behar dute.
- Derrigorrean, 50 x 70 cm neurtuko ditu.
- Gura den beste kolore eta edozein teknika erabil daiteke.

► LANAK AURKEZTEKO LEKUA, MODUA ETA EPEA

- **Bermeoko Udaleko egoitza elektronikoan**
Eskatzaileak egoitza elektronikoan beteko du eskaera-orria eta kartela bereizmen handiko PDF formatuan aurkeztu behar du.
- **Berhaz bulegoan (Ertzilla 8) edota udaleko kultura eta hezkuntza sailean**
(Irakaskintza 14-16)
Eskatzaileak kartela formatu fisikoan, CD euskarrian edota 50x70 cm-ko tamainarekin euskarri gogor bati lotuta aurkeztuko du.

► TESTUA

Testu hau ipini beharko da: BERMEOKO JAIK 2025 Irailaren 7tik 16ra

► KARTEL FINALISTAK AUKERATZEA

EPAIMAHAIA 9 kidek osatuko dute: Udalean dauden alderdietako kide bana, artearen edota diseinu grafikoaren alor inguruko 2 pertsona, Jai Batzordeko 2 ordezkari, mugimendu feministako ordezkari 1 eta gazte 1. Epaimahaian emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango da. Epaimahaiak kartel guztiak ikusiko ditu eta lan onenen artean finalistak aukeratuko ditu.

► LAN IRABAZLEA AUKERATZEA

Herritarrek epaimahaiak aukeratutako kartel finalistaren artean bozkatu ahal izango dute.

• Bozkatzeko erak:

Gizarte eta Kultura etxean ipinitako ontzian.
Internet bidez.

• Bozketaren balioak:

Aurrez aurreko botoek % 70eko balioa izango dute.

Internet bidez emandako botoek % 30eko balioa izango dute.

SARIA: Sari bakarra egongo da, 600 €-koa. Legez ezarritako atxikipen fiskala aplikatuko zaio.

► LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA ARGIBIDE GEHIAGO:

- Bermeoko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila.
- Tel.: 946179157
- e-posta: kultura@bermeo.eus

► LEHIAKETAKO OINARRIAK

- Webgunea: www.bermeo.eus

2025. URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO LIBURUKO ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO DEIALDI PUBLIKOA

Oinarriak: www.bermeo.eus

Uztailean...

- Jazzber
- Gorefest
- Madalenak
- Serrats Aldapa Xtrem
- Andrak erramutan
erronka feminista



Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57

kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

